

Amorotze-Zokotze

Aurkibidea

Udalerria: Amorotze-Zokotze

Sarrera



Amorotze-Zokotze Nafarroa
Behereko ipar-erdialdeko
udalerria da, Amikuze
eskualdekoa.

- **Biztanleak:** 216
- **Euskaldunak:** %19,2

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **3**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak

Adolf Berdeco (1861)

Amorotze-Zokotze Berdekoenea etxean sortu zen Marie-Pierre Adolphe BERDECO, 1861eko uztailaren 2an. Aita herriko alkatea izan zuen; ama, aldiz; arrandaduna. 1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa da honakoa. 52 urte zituen grabaketa egin zitzaienean. Amorotze-Zokotzeko alkatea izan zen. Euskalkia: ekialdeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.186

Katheriñe Faut (1888)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 25 urteko jostuna. Euskalkia: ekialdeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.187

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Amikuzeko euskara

- **Hizlaria(k)**: Berdeco, Adolf
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: ZOK-001/001
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:14
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Bere eskualdeko euskarari buruzko gogoeta bat egiten du. Elizaren eraginez, euskalki horrek atzerakada handia izan du Lapurdin.

Transkripzioa

Milesker hun bat, zier, jaunak, zeen eta iduitu bitzauzie Amikuzeko xoko huntako eskuara motak ee meexi ziela bildia izaitia, tresna pullit hortaz, horren barnian, mundia mundu deno bizitzeko. Aitortzen zit eztela lapurtarra bezin gozua, ez etaare xuberatarra bezin arina, aphezek berek pheedikietan uzten dutela bazterreat. Bena guk, amikuztarrek, maite diizi dena den; alainan guria uzu, gure ainzinekuek utzia, eta Jinkuak hala nahi badu, gure ondokuer den bezala utziko duuna. Izan ditzen xapeldun edo bonetdun, oro laborariak Amikuzen; eta laborantxako gauzetan gure mintzaiak gure auzoer etzi deus mailleatzekoik; bereber badailazu, eta agian luzaz oono iraunen zi hemengo eskualdetan.

2. Aisia

2.1. Erbi-ehiza

- **Hizlaria(k)**: Berdeco, Adolf
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: ZOK-001/002
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:01:14. **Bukatu**: 00:02:04
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Erbi-ehizaren inguruan sortzen den giro alaiari buruz dihardu.

Transkripzioa

Erbi ihizia

Zunbat goxo den, uda undarrian, ekhia leki gabe, ohetik jauz in eta xahakua sahetsian, harma bizkarrian, pottenguak aitzinian, iaztor-otharretan gaindi ibiltzia erbi zango luze baten ondotik. Gauaz in tzi bere harat-hunatak, hemen trefla puxi bat jastatu, han belhar pherdiari lotu eta artho elge batetaik pezunain gainetik peiruntian dauzi inik, mendiko bidiaari gora abiatu. Zakurrak ondotik orruaz, ihiztaria lasterka...

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Eskua petroliarekin erre

- **Hizlaria(k)**: Faut , Katheriñe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: ZOK-002/001
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:04
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Jostuna zen eta gau batez josten ari zelarik, petroliodun lanpara bat erabiltzen ari zela eskua nola erre zuen kontatzen du.

Transkripzioa

Gau batez josten ari nintzalaik intzuten zit ülü bat ximinei petik burrunban ari zela. Zer zien behar niela ikhusi lanpa hartuik, so iten dakozüt: lanpa altxatziaikin makurtzen zit eta gaza ixurzen eskia in gainat eta fite sü lothü zatazün eskian, eta oro erre. Fite ützi nizin üliari so itia, ar zain, nahi bazien, burrunbaz, binien ohitaorik ene eskia ezin kontsolatüz. Gau hartan eznizin loik in, ene mina ezin patitüz, hunat kurri eta haat kurri. Bizpahiru egunen buruko mina ezitia mina ezitia nizin: arras sendatü gabe sei aste iraun zatazün. Ordian untsa erre banintz, orai eznauzien khundatüko ixtorio hau.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com